

Birmingham eguneko zentroa

BERMINGHAM GERONTOLOGIA ZENTROA

Pinu Bidea, 35
20015 Donostia
Telefona: 943 31 71 00
Faxa: 943 21 66 33



Matia Fundazioak 1888tik dihardu Gipuzkoan lanean, beren kabuz baliatzen ez diren adinduei eta haien senitartekoei laguntza ematen. Gaur egun, honako baliabide hauek ditu gure fundazioak: ospitale bat, sei gerontologia-zentro, eguneko bost zentro, errehabilitazioko zazpi zentro, gorputz-ezinduei zuzendutako unitate bat eta espezializatutako hainbat kontsulta-zerbitzu (adibidez, Oroimen eta Alzheimer Unitatea eta Gerontologia Ebaluazio eta Orientazioko Zerbitzua).

Bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta, banan-banako arreta osoa eskaintzen dugu. Adinduaren osasuna, autonomia, partaidetza eta gizarteratze-maila hobetzea dira gure kezkarik handienak: azken finean, adinduaren eta haren familiartekoen bizi-kalitatea areagotzea.

Arreta-eredurik aurreratuenak eta lan-talde lehiakor bezain konprometitua ditugunez, Matia Fundazioa erreferente bihurtu da adinduen zaintzaren sektore soziosanitarioan. Estatuko lehen entitate pribatua izan gara zerbitzu soziosanitarioetan kalitatearen ziurtagiri hirukoitza jasotzen eta kudeaketa-bikaintasunaren zilarrezko Q saria lortzen.

BERMINGHAM gerontologia-zentroan, etxean zaindu ezin dituzten eta beren kabuz baliatzen ez diren adinduei eta haien familiei laguntzen diegu, eta bai batzuei bai besteei gure zentroan sartzeko eta moldatzeko prozesua samurtzen saiatzen gara. Ibaetan (Donostian) dago, eta plaza guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin itunduta ditu. Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Egoitza zentroa
- Eguneko zentroa



EGUNEKO ZENTROA

Eguneko zerbitzu sozioasistentzial honek funtsezko beharretan eta behar terapeutiko eta soziokulturaletan zaintza eta laguntasuna behar duten adinduen familiei laguntzea du helburu eta, horrela, zaintzaile nagusiei arnasaldiak ematea. Eguneko zentroak, familiei adinduak zaintzen laguntzeaz gain, erabiltzailearen autonomia sustatzea eta hura familia-ingurunean zein gizartean integratzea ere lortu nahi du.

Instalazioak berriki berrizatu eta egokitu dituzenez, aukera du jarduerak erosotasunez garatzeko eta erabiltzaileari ingurune atsegina eskaintzeko. Terraza zabala ere badu zentroak, eta eguzki-egunetan primeran egoten da bertan.

Plazak

40 plaza itundu.

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera
09:00etatik 18:00etara

Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

- Banan-banako arreta eguneroko jardueretan
- Medikua eta elikapen beharretara egokitutako dieta
- Prebentziozko geriatría-medikuntzako eta erizaintzako kontsultak
- Egokitutako garraio-zerbitzua
- Osasunari, aldarteari eta gaitasunei laguntzeko programak
- Lan eta aisia programak

Banan-banako arreta espezializatua

Lehenik eta behin, hasierako balorazioa egiten zaio erabiltzaileari. Zentroko diziplinarteko talde bat arduratzen da zeregin horretaz. Balorazio horren emaitzen arabera, banan-banako zainketarako plana zehazten da. Gero, aldi berean, berrikusi egiten da plan hori, erabiltzailearen aldaketan eta behar berrien arabera egokitzeko.

Familiaz eta gizarte-inguruneaz ere arduratzen gara; horregatik, informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzen diogu uneoro familiari: zentroan sartu aurretik, sartzeko egunean, egokitzapen-aldian eta egonaldi osoan zehar.

INFORMAZIO GEHIAGO

Zentroaren zerbitzuei buruzko informazio gehiago nahi baduzu:

Birmingham Gerontologia Zentroa

Pinu Bidea, 35
20015 Donostia - San Sebastián
Telefonoa: 943 31 71 00
Faxa: 943 21 66 33
Helbide elektronikoa: aorbegozo@matiaf.net
www.matiafundazioa.com